

Nafarroako Esaera Zaharrak. Sunbilla.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zarrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrek. Sunbilla.

- 1674 *Adiskide aundiakin, orduak lasa.*
Lesaka-ko "Casino" ostatuan dago idatzia.
- 1675 *Also-malso, denak igualso.*
"Jatxu eta Haltsu, biak igualtsu".
- 1676 *Ama, aitu nai dugu, noiz ez duzun iño(re)kin zorrik.*
- 1677 *Ardi txarra, beti bildotx.*
- 1678 *Arrika botatzekorik ez dago.*
Guziak zerbait balio dute.
- 1679 *Arto burugabea, arto antxua.*
- 1680 *Auntzak bilkorra non du? Aker-begarri (belarri) ondoan.*
Baztango esaera omen da. Bilkorra = sebo.
- 1681 *Azi xia (xeea), beila (bereal) yaio.*
- 1682 *Bazkoz il-zar, Austerrez il-berri; ire aita ta ama ez dituk gose ez egarri. -*
Illak ttuk ordu(a)n? -Ik diok ori.
"Tu dixisti".
- 1683 *Bi etxeko zakurra, gosiak il.*
- 1684 *Biriatu: San Pedrok ez ikusi, Jainkoak ez begi(ra)tu.*
Biriatu, Lapurdiko erria, Bidaso ondoan.
- 1685 *Danbolin pagatuak bein ere ez du soñu onik.*
- 1686 *Denbora yoan ta ondoan asi naiz pentsatzen, zartziak ez duela gauz(a) onik*
ekartzen.
- 1687 *Denian bon bon, ez denian egon.*
- 1688 *Emakumiak yaten du etxia tellatutik beiti; gizonak beitik goiti.*
Eta ola biok etxea galtzen.
- 1689 *Erriko apezak, meza ez atera bai atera zegoen batean, erran omen zuen:*
Arrixkiñekuak emen badire, Larrakaizkuak emen dire.

Emen ere bi etxe: urbillena Arrixkiñea, urrutiena Larrakaitz, eta alere ontakoak lenago etortzen mezara.

- 1690** *Etxeko ardintxek etxian badire, kanpoko ardiez guti oroi*
Ardietaz esaten den oroi, umetaz eta gauzetaz ere berdin.
- 1691** *Etxetik ateratzekoan: oroizte non gelditzen geran.*
Oroizte = oroi zaitezte.
- 1692** *Etxiak biar (bear), eta bidi(a)k ekarri.*
Bi lagun gosetien ezkontza.
- 1693** *Ez dire zuendako denbora obiak etorriko.*
- 1694** *Galtza-zar batendako, gona-zar bat ez da faltako.*
- 1695** *Gauza altxatua, urre gorri.*
Altxatu: gorde, izkutatu.
- 1696** *Gazta erre yale: sura erori ta bat ere gabe.*
Ikus geroago Zigako esaeren artean...
- 1697** *Giltxaurrak urrutira bete betiak: urbildu, ta ustelak.*
- 1698** *Gizon txiki, arronka aundi.*
Txikia, baño asots, arroitu aundia egiten.
- 1699** *Goizian purru-salda, arratsian azak: aixe kabitzen ditu ipurdian galtzak.*
- 1700** *Goiz ollanda berandu ollo.*
Neska goiz gizonkoia, berandu ezkontzen.
- 1701** *Gure alaba, izain duzu dena onat, dena onat; nik nai dut dena unat eta arat.*
- 1702** *Yaiotzen denak, iltzia zor.*
- 1703** *Yanak yateko, ta lanak egiteko.*
- 1704** *Kontukin zabilzte (zabiltzate) zoazten tokietan.*
Amak umeai esana.
- 1705** *Larrian yaioak, larrian nai.*
Larrian = larrean.
- 1706** *Los domingos de visera: astelegunetan kaka-biltzia.*
Jaiegunetan fanfarronkeriak, astegunetako gosea.

- 1707 *Martxo galartxo, larrak adartxo: nere bildotsak ez ditek ire beldur asko.*
- 1708 *Neskatorik merkeena etxeko andrea.*
Etxekoak ola irabazian ateratzen.
- 1709 *Orain etorria dut ongi bizitzia.*
- 1710 *Urr-urte, sagu-urte.*
- 1711 *Zerri gosik (goseak), ezkurra amets.*
- 1712 *Zu bildots orduko, ni ardi.*
Zu neskatxa ziñaneko, ni ezkondua.
- 1713 *Zorri piztua, maiz gaiztua.*
- 1714 *Zurra(re)n sakelak bi zulo.*